

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

**LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA**

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Profesionalen partaidetzaz antolatutako tailer batek klima aldaketari buruzko informazioaren erronkak aztertu ditu

Elizalde kontseilak "arazoa ulergarri egitearen garrantzia" nabarmendu du, "herritarren parte-hartzea lortzeko"

Osteguna, 2018.eko martxoak 1

Komunikazioaren arloko hogeit hamar profesionalak parte hartu dute gaur goizean, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamentuak Nafarroako Jauregiko Joaquin Elizondo Aretoan antolatutako "Klima aldaketa Azaltzeko Saioa/ Contar el cambio climático" izenburuko tailer-gosarian.

Isabel Elizalde kontseilariak irekitako saioan, idatzizko komunikabideak, irratia, telebista eta komunikazio enpresak ordezkatu dituzten kazetariak parte hartu dute, baita enpresa publikoetako nahiz sindikatu etako kabineteetako kideek, dibulgatzaileek eta kazetari independenteek ere.

Tailerrean, AEMETeko Peio Oriak eta Lursareako Rafael Aldayk parte hartu dute hizlari gisa, "Egungo egoera: klima aldaketaz kontatu beharrekoa" eta "Klima aldaketaz informatzeko tresnak" delako gaiari helduta, hurrenez hurren.

Kontseilariak klima aldaketaren aurkako borrokan foru Exekutiboak hartutako konpromisoaren barnean eta Nafarroako Gobernuaren politikak finkatu eta zehazten dituen Bide Orriaren barnean kokatu du saioa. Elizaldek komunikabideen eta informatzaileen eginkizuna nabarmendu du gaiari buruzko dibulgazio eta sentsibilizazioari dagokionez, "haiexek lortzen baitute arazoa irisgarria eta ulergarria izatea, klima aldaketa arindu eta horretara egokitzeko ahaleginean parte-hartze indibiduala eta kolektiboa lortzeko", azpimarratu du.

Hizlariak nahiz partaideek klima aldaketaren oinarritzko kontzeptuen eta arazoaren gainean lan egin dute, haien artean izan beharreko komunikazioa hobetzeko xedez, herritarrentzat ulergarria den eta arazoari aurre egiteko banakako nahiz taldekako proposamenetan isla daitekeen informazio zehatza eta dokumentatua banatuz.



Elizalde kontseilariak ireki du, eta harekin batera izan dira Oria (irudiaren ezkerrean) eta Alday (eskuinaldean)